

POLTSIKO ANTZERKI SORKUNTZA 2024/25

XV. PROIEKTU DEIALDIA OINARRIAK

Donostia Kulturak, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen laguntzarekin, Poltsiko Antzerkiaren alorrean euskarazko sorkuntzak bultzatzeko hamalagarren proiektu deialdia antolatu du. Hauek dira ezarritako oinarriak eta irizpideak:

1.- XEDEA

Formatu txikiko eta laburreko antzerkiaren euskarazko sorkuntza bultzatzea, hau da, Poltsiko Antzerkiarena.

Bestalde, ekimen honen bidez antzezlanak ekoizten lagundu nahi da eta azkenik, Poltsiko Antzerki Jaialdiaren programazioaren barruan hautatutako proiektuen emanaldiak antolatu.

Hala, trebakuntzaz eta hedapenez haratago, tartean diren sorkuntza eta ekoizpen atalak ere jorratu nahi dira ekimen honen bitartez, kultur katea bere osotasunean burutuz.

2.- KATEGORIAK

Kategoria bakarra eta orokorra izango da. Mota eta genero guztiak onartuko dira, baita diziplina artekoak ere.

Aurkeztutako proiektuek Poltsiko Antzerki formaturako egokiak izan beharko dute. Hau da, ostalaritza-establezimenduen edo antzezenak egitea erabakitzen den antzeko espazioen baldintzetara egokitu behar dira, establezimendu horien errealitatea eta tamaina kontuan hartuta.

3.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Banaka zein taldeka aurkeztu ahal izango da.
- Partaideen adina 16 urtetik gorakoa izatea. Arau honen salbuespenak egiaztatu egin beharko dira eta kasu bakoitza banan bana baloratuko da.
- Aurkeztutako antzezlanak jatorrizkoak, estreinatu gabeak eta euskaraz izango dira
- Gidoiak ezin dute idatzita egon deialdia aurretik. Deialdian parte hartzeko nahikoa da eszena baten lagina bidaltzearekin.
- Proiektuek euskara maila egokia izan behar dute.
- Antzezlan proiektuek ezin izango dute 50 minututik gora iraun eta gutxienez 30 minutukoak izan beharko dute. Arau honen salbuespenak egiaztatu egin beharko dira eta kasu bakoitza banan bana baloratuko da.

4.- IRABAZLEA ETA FINALISTA

KULTUR EKINTZA ACCIÓN CULTURAL

Konstituzio Plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 483 840 E. kulturekintza@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Antolatzaileek bi proiektu aukeratuko dituzte. Lehenengoa proiektu irabazletzat joko da, eta bigarrena proiektu finalistatzat.

Proiektu irabazlearen eta finalistaren hautaketaren jakinarazpenarekin batera, 2.500 € eta 2.000 €-ko ekarpen ekonomikoa jasoko dute (gordinak eta zergak barne), hurrenez hurren, proiektu bakoitzari dagozkion prestaketa-jarduerak errazteko eta gauzatu ahal izateko.

Aukeratutako lanak (4 emanaldi bakoitza) Poltsiko Antzerki Jaialdiaren barruan estreinatzeko eta antzezteko konpromisoa hartuko dute deialdiaren irabazleek eta finalistek.

5.- ANTZEZLANAK POLTSIKOKO ANTZERKIAREN JAIALDIAN

Antzezlanen emanaldiak Poltsiko Antzerki Jaialdiaren baitan estreinatuko dira eta bakoitzak 4 emanaldi egingo ditu Donostia Kulturak adierazitako espazioetan. Aukeratutako lanen irabazleek prestutatasuna izan behar dute jaialdiaren egunetan.

Proiektu irabazleak 3.000 € jasoko ditu (gordinak eta zergak barne), Poltsiko Antzerki Jaialdian egin beharreko lau emanaldien truke.

Proiektu finalistak 2.500 € jasoko ditu (gordinak eta zergak barne), Poltsiko Antzerki Jaialdian egin beharreko lau emanaldien truke.

Gainera, sormen-proiektuak gauzatzeko, kultur etxeek abenduan zehar espazioak utziko dituzte aukeratutako antzezlanak muntatzeko. Donostia Kulturak eta irabazleek lagapenen baldintzak eta egutegia adostuko dituzte.

Donostia Kulturak sormen-prozesuan zehar egindako lanen probak eskatu ahal izango ditu, eta proiektuan definitutako baldintzak betetzen ez direla erabakiz gero, ekarpen ekonomikoak kentzeko edo erreklamatzeko ahalmena izango du.

Deialdi honetako oinarrietako edozein baldintza betetzen ez bada, Donostia Kulturak emandako ekarpenen zenbateko ekonomikoak erreklamatu ahal izango ditu, eta legezko bidea erabili ahal izango da.

6.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia ondoko kide hauek osatuko dute:

- Donostia Kulturako Kultur Ekintzako zerbitzuko hiru kide.
- Donostia Kulturako Antzerki eta Dantza eta Antzerki unitateko kide bat.
- Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuko kide bat.
- Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteko bi kide.

7.- HAUTAKETA IRIZPIDEAK

KULTUR EKINTZA ACCIÓN CULTURAL

Konstituzio Plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 483 840 E. kulturekintza@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

- Egitasmo artistikoaren originaltasuna.
- Proiektu-txostenaren zorrozatasuna.
- Proiektuaren bideragarritasuna.
- Hainbat ostalaritza-espaziotara edo hainbat tamainatako bestelako espazio mugatuetara egokitzea.
- Euskara maila optimoa.
- Antzerki-proiektuen gehieneko iraupena 50 minutukoa izango da, eta gutxienekoa 30 minutukoa. Arau horren salbuespenak egiaztatu ahal izango dira eta kasu bakoitza banaka baloratuko da.

8.- DATAK

- Hautagaitza deialdiaren hasiera: 2024ko maiatzaren 20a.
- Hautagaitza aurkezteko azken epea: 2024ko irailaren 15a.
- Proiektuen aukeraketa: 2024ko urriaren 30a.
- Ikustaldia: Poltsiko Antzerki Jaialdiaren hurrengo edizioan (2025).

9.- PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEA

Proiektuak aurkezteko azken eguna 2024ko irailaren 15a izango da. Helbide elektronikoa honetara bidaliko dira: kulturekintza@donostia.eus

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskaera inprimakia beteta.
- Proiektu-txostena (proiektuaren nondik norakoak eta beharrezkoa den informazio guztia. azaldu beharko du, bai formatu bai eduki aldetik).
- Eszena baten lagina (idatzia edo/eta ikus-entzunezkoa).
- Parte hartzaileen aurreko lanen eta proiektuen aurkezpena (CV).

10.- BESTELAKOAK

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Antolatzaileek beharren arabera edozein aldaketa egiteko ahalmena dute, baita deialdi honetan jasotzen ez den edozein alderdiri buruzkoa ere.

Donostian, 2024ko martxoaren 8an